

Euskal Administrazio Publikoen batez besteko enplegua 129.000 pertsonatik gorakoa izan zen 2016an. Aurreko urtean baino % 1,3 gehiago

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu guztiaren % 12,6 da

Euskal Administrazio Publikoek batez beste 129.737 langile izan zuten, EUSTATEk prestatutako datuen arabera (kontuan izan gabe Estatuko Administrazioaren mendeko langileak eta Gizarte Segurantzaren sistemaren mendekoak). Joan den urtean baino % 1,3 gehiago dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko landun guztien % 12,6 dira.

129.737 enplegatu publikoen % 65,3 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileak dira, % 19,6 tokiko erakundeetako langileak dira, % 8,0 Foru Aldundietako langileak dira eta gainerako % 7,1 unibertsitateetako, fundazioetako eta beste erakunde publiko batzuetako langileak dira.

1. taula. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan lan egiten duten pertsonak, erakunde motaren arabera

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2016/2015 (%)
Guztira	127.291	125.930	123.719	123.845	128.047	129.737	1,3
1.- Eusko Jaurilaritza	83.009	82.516	80.051	79.767	83.447	84.752	1,6
2.- Foru aldundiak	10.201	10.134	10.228	10.241	10.186	10.404	2,1
3.- Tokiko entitateak	25.532	24.429	24.353	24.798	25.184	25.400	0,9
4.- Beste Entitate Publiko Batzuk	8.549	8.851	9.087	9.039	9.230	9.181	-0,5

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen gidazerrenda

2015arekin alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan 1.690 pertsona gehiago izan zen lanean, % 1,3 gehiago. Ehunekoetan, Foru Aldundietan izan den bilakaera nabarmentzen da, % 2,1eko gehikuntzarekin; gero, Eusko Jaurilaritzaren bilakaera, % 1,6ko gehikuntzarekin, eta tokiko erakundeen eta haien mendeko erakundeen bilakaera, % 0,9ko gehikuntzarekin. Gainerako erakunde publikoetan, oro har, portaera zertxobait negatiboa izan da, - % 0,5.

Bestalde, 2016ko abenduaren 31n, langile guztien % 62,3 funtzionarioak ziren, % 36,8 lan-kontratuduneko langileak ziren —bi kasuetan barnean hartuta Osakidetza estatutupeko langileak—, eta % 0,9 goi-karguak ziren.

2016an, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zerbitzurako langile guztien % 60,9 langile finkoak, funtzionarioak, lan-kontratadunak eta estatutupekoak ziren, % 15,0 bitarteko funtzionarioak ziren, eta % 23,2 aldi baterako langileak ziren.

2. taula. 2016ko abenduaren 31n Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan lan egiten duten pertsonak, esparru erregulatzailerak

	GUZTIRA	Eusko Jaurilaritza eta menpeko organismoak	Foru aldundiak eta menpeko organismoak	Tokiko entitateak eta menpeko organismoak	Beste Entitate Publiko Batzuk
Guztira	131.973	86.406	10.387	25.792	9.388
Goi-karguak	1.178	293	128	606	151
Funtzionario guztiak	82.214	57.666	6.642	14.390	3.516
Funtzionario finkoak	62.401	44.862	4.831	9.912	2.796
Aldi baterako funtzionarioak	19.813	12.804	1.811	4.478	720
Lan kontratadun guztiak	48.581	28.447	3.617	10.796	5.721
Lan kontratadun finkoak	17.980	7.858	2.142	5.697	2.283
Aldi baterako lan kontratadunak	30.601	20.589	1.475	5.099	3.438

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen gidazerrenda

2016ko abenduaren 31n, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetako langileen % 38 gizonetzkoak ziren eta % 62 emakumezkoak ziren.

Azken 5 urteotan, areagotu egin da emakumeen nagusitasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetako langileen barruan. Emakumeen kopurua % 4,8 gehitu da, eta gizonetzkoen kopurua % 0,6 murriztu da.

3. taula. 2016ko abenduaren 31n Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan lan egiten duten pertsonak, sexuaren arabera

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
GUZTIRA	128540	127.704	126.110	126.312	130.447	131.973
Gizonak	50408	49.912	49.062	48.916	50.085	50.100
Emakumeak	78132	77.792	77.048	77.396	80.362	81.873

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen gidazerrenda

Nota metodologikoa: Administrazio Publikoen direktorioa osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Foru Aldundiek eta Udalek, baita haien mendeko administrazio-organismo autonomiadunek, erakunde publikoek, sozietate publikoek, fundazioek eta irabazi asmorik gabeko erakundeak. Erakunde horien artean daude % 50eko partaidetza publikoa edo handiagoa duten erakundeak —administrazio bakar baten partaidetzakoak izan zein zenbait administrazio publikoren baterako partaidetzakoak izan—.

Berrir kalkulatu da seriea, Eusko Jaurilaritzan eta haren mendeko erakundeetan ordezkari langileak kontabilizatzeko moduan izan diren aldaketaren ondorioz.

Oharra: estatutupeko langileak funtzionarioen barruan zein lan-kontrataduneko langileen barruan hartu dira.

Informazio gehiago.

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62